



Begarako  
Udala

## **BERDINTASUN TEKNIKARIA PLAZA BETETZEKO DEIALDIA**

### **PRAKTIKALDIAN IZENDAPEN ETA LANPOLTSA ONARTZEKO ERABAKI- PROPOSAMENA.**

Begarako Udalak berdintasun teknikaria kontratatzeko edo izendatzeko egindako ohiko deialdiaren oinarriak onartu zituen 2021eko otsailaren 1ean.

Halaber deialdi berean behin behineko izendapen beharrei erantzuteko lanpoltsa osatuko zela jaso zen.

Epaimahaiak 2022ko urtarrilaren 26an egindako bileran erabaki ZUEN prozesu osoan izandako emaitzak eta erreklamazio eta errekursoaren inguruan hartu diren erabakiei emandako erantzunak kontuan izanda prozesuko puntuazio orokor hauek onartzea.

NAN	TEORIKOA	PRAKTIKOA	PSIKOTEKNIKOA	MERITUAK	GUZTIRA
72XXXX35S	11,7	31,5	35,83	16,54	95,57
23XXXX82G	15,875	25,5	39,12	2,08	82,575
72XXXX14V	13,625	26,5	34,72	6	80,845

Halaber proposatu ZUEN prozesu osoan puntuazio altuena izan duen izangaia 72XXXX35S, berdintasun teknikaria plaza betetzeko, funtzionario praktikaldian izendatzea.

Halaber proposatu ZUEN, aldi baterako berdintasun teknikari premiei erantzuteko lanpoltsa osatzea, lortutako puntuazioaren hurrenkeran, honako hau izanik:

NAN	TEORIK	PRAKTI	PSIKOTEK	MERITUAK	GUZTIRA
23XXXX82G	15,875	25,5	39,12	2,08	82,575
72XXXX14V	13,625	26,5	34,72	6	80,845

23XXXX82G izangaia merituen balorazioaren erreklamazio epean aurkeztutako idatzia ikusita (balorazioaren inguruko azalpenak eskatu ditu) Epaimahaiak puntuazioan zuzenketa bat egin eta erabilitako irizpideak baieztatzea eta horien jakinarazpena egitea erabaki du 2022ko otsailaren 9an.

Hori horrela proposatutako zuzenketa ikusita lanpoltsa proposamenean zuzenketa egiten da:

NAN	TEORIK	PRAKTIK	PSIKOTEK	MERITUAK	GUZTIRA
23XXXX82G	15,875	25,5	39,12	3,04	83,535
72XXXX14V	13,625	26,5	34,72	6	80,845

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea izanik, jakinarazpen hau argitara eman den hurrengo egunetik hasita. \*

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

\*Jakinarazpen hau 2022ko otsailaren 15ean argitara eman da udaleko iragarki taulan eta Bergarako udalaren web orrian.

Bergaran, 2022ko otsailaren 15ean

Epaimahaiko idazkaria

